

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure enpresaren proposamenak hainbat abantaila eskaintzen dizkie bai bezeroei bai planetari. Egitasmoaren helburu nagusia janariaren xahutzea murriztea eta baliabideak modu eraginkorrean erabiltzea da, elikagaiak alferrik galtzea saihestuz. Gaur egun, munduan 80.000 milioi pertsona inguru daude desnutrizio egoeran, eta urtero milioika pertsona hiltzen dira elikagairik ez duelako. Hori dela eta, ezinbestekoa da baliabideak modu jasangarrian eta efizientean kudeatzea, baita ingurumenaren kalteak minimizatzea ere. Gure ekimenaren bidez, janariaren xahutzea murriztuko digu eta baliabide naturalen erabilera optimizatuko dugu, supermerkatuetan iraungitzearen dauden produktuak aprobetxatuz.

Supermerkatuetan, produktu iraungitzearen daudenei deskontu handiak aplikatzen zaizkie, baina hala ere, hauek saltzeko arazoak izaten dira. Horregatik, gure aplikazioak soluzio praktiko eta bideragarri bat eskaintzen du bi alderdi hauentzako: batetik, bezeroei produktuak merkeago eskaintzen dizkiegu, eta, bestetik, supermerkatuei aukera ematen diegu haien stock-a modu eraginkorrean kudeatzeko eta xahutzeari aurre egiteko. Aplikazioak erabiltzaileei jakinaraziko die deskontuetan dauden produktuen berri, eta, horrela, bezeroak produktu horiek erostera bultzatuko ditu, prezio baxuan.



Horrez gain, bezeroak aurrezkiak lortzeko aukera izango dute, elikagaien prezioak etengabe igotzen ari diren garaian. 2023an, elikagaien prezioak %7,3 igo ziren (Nazio Batuak, 2023), eta gorrek etxeko ekonomian eragina izan du. Gure aplikazioaren bidez, deskontuak eskaintzen ditugu, eta horrek bezeroei aukera ematen die dirua aurrezteko. Horrela, bezeroek benetako onura ekonomikoa izango dute, eta, aldi berean, ekimen honek produktuen alferrik galtzea saihesteko laguntza izango da. Honekin batera, ingurumenari ere mesede egingo diogu, hondakin gutxiago sortuz eta baliabide naturalen erabilera eraginkorragoa sustatuz.



Beraz, gure proiektua hiru eragile nagusientzat onuragarria da: supermerkatuentzat, beren salmentak handituz eta stockaren kudeaketa optimizatuz; bezeroentzat, prezio merkeak eta aurrezkiak lortuz; eta ingurumenarentzat, hondakin gutxiago sortuz eta baliabideen erabilera jasangarriagoa sustatuz. Izan ere aplikazioak bi helburu nagusi lortzen ditu aldi berean: baliabideen erabilera eraginkorra eta elikagaien xahutzea saihestea, eta horrek eragin positiboa izango du gizartean, ingurumenean eta ekonomian. Beraz, balio ekonomiko eta ekologiko handia eskaintzen du, eta horrek bere garrantzia nabarmendu egiten du.

Egia da, gurearen antzeko aplikazioak badaudela, hala nola **Too Good To Go**, elikagaien alferrik galtzea murriztea bilatzen dutenak, iraungitze-datatik hurbil dauden deskontu-produktuak eskainiz. Hala ere, aplikazio horiek ez diete uzten erabiltzaileei zehazki jakiten zer kontsumituko duten; izan ere, eskaintza ausaz aurkezten da, eta ez dira kontuan hartzen bezeroaren lehentasun pertsonalak. Gureak, ordea, erabateko gardentasuna eta pertsonalizazioa eskaintzen ditu. Erabiltzaileek beti jakingo dute zer produktu jasoko duten, deskontuko produktuei buruzko informazio zehatza emango baitzaie, haien lehentasunekin eta beharrekin bat datorrena. Horrek ziurtasuna ematen die benetan kontsumitu nahi dutena bakarrik erosten

ANDER MENDIZABAL / ANDER BARAÑANO / MARTIN LÓPEZ / MARKEL VALCARCEL

ari direlako, eta hori ez da gertatzen ausazko hautaketa batekin jarduten duten beste aplikazio batzuetan.